

Adierak ondorioztatzen

Joanba Bergara

“Adierak azaltzen” deritzanekoan, izaki bizidunak eta objektuak izendatzen dituzten hitzen adierak azaltzeko bideak izan genituen aztergai; baita berauek erabiltzeko irizpideak ere. Eta gogoratuko duzunez, hitz solte edo testuingurugabekoen esparrura mugatu genuen geure lana. Oraingoan, aldiz, hartan ez bezala, testua dugu abiapuntu eta euskarri; beroni behar bezala erreparatu gero, bertatik hainbat eta hainbat adiera ondoriozta bait daiteke azalpenetan ibili beharrean. Ikasleak, halere, testuen aurrean berekasa eroso ibili eta berauei behar bezala aurre egiteko, eragiketa hori ongi burutzen ikasi behar du. Mindegi honek, hain zuzen, ikasbideen esparrura hurbildu nahi gaitu.

Mindegia bideratzeko iradokizunak

1 Hurbilpena

- a. “Ikasleek arazo larriak izaten dituzte testuingururik gabeko hizkuntz itemak ulertzeko. Handiagoa da, ezbairik gabe, testuinguru esanguratsua duen itema ulertzeko ikaslearen gaitasuna alderantzizko kasuan baino”. Bat al zatoz baieztapen horrekin? Zergatik ote? Arrazoiak eman.
- b. Lankideekin bildu, elkarri arrazoiak berri emateko.
- c. Zer erreparatu adierak ondorioztatzeko? Zer-nolako arrastoak dauzka maiz testuak, eragiketa hori burutzeko bidea ematen dutenak? Balizko arrastoak zerrendatu eta sailkatu ondoren, taldekideekin bildu emaitzen berri elkarri emateko. Arazoa argituta gero, idatzi arrastoen izenak 15x10 zm-ko fitxetan, izen bat fitxa bakoitzeko.


2 Testu-azterketa

- a. .1 aurrean duzula, azpimarraturiko “hitzak” azaldu.
- b. Lankideekin azalpenak alderatu. Zertan hartu duzue oin azalpen-lana burutzeko?
- c. .2 aurrean duzula, azaldu beheko zerrendeetako hitzen *adierak* hitzoi edota berauen testuinguruari behar bezala erreparatu ondoren. Azalpenak ematekoan, esan bezala, testuari eutsi. Horrela arrasto lagungarriak aurkituko dituzu eta. Testutik hartutako hitz horietako bakoitzaren

Bestalde, betidanik izan du Porcelanas Bidasoak mundu guztian ezagunak diren artista nahiz diseinadoreen laguntza, **hala nola**, Dali, Loewy, Benedito, Yoshida edo gaur egun Mariscal, Tusquets, Nagel, Gulotta edo Peret.

Lantegi-eskola

Porcelanas Bidasoak badu tradizio PTX bat eta XXILPPRRS -



Porcelanas Bidasoaren museoa osatzen joango dira.

tik **hezi** izan ditu etxeko artistak. Gaur egun teknolojia berria sartzen ari da lantegian eta horrek eskulana PITKOT jartzen du. Hortik dator, hain zuzen ere, modelista eta dekoratzaileen lantegi-eskola sortu beharra. «Urtetan Porcelanas Bidasoan lan egin duten artista eta artesauak izango dituzte III ikasleek, baita kanpoko artistak ere» esan digu Jose Ignacio Fernandez, enpresako RU lari eta zuzendaria eta aldi berean ideia honen aita denak.

Bidasoako lantegi-eskola arte-ikasle, irakasle nahiz keramikaren PPP an **murgildu** nahi duten artistei AAAAAAA dago.

Enpresaren ondoan **kokatuta** egongo da, ikasleek bertako eta erabil ditzaten. Bestalde, eta PITPETPÄT ez bada ere, eskolak autofinantziazioa izango du helburu, ikasleen piezak eta salduz, «horrek gainera, beren buruarekiko konfidantza emango die artista eta artesau berriei» dio J.I. Fernandezek «eta piezarik onenak Porcelanas Bidasoaren POT osatzen joango dira».

Portzelanak arte izaten jarraituko badu, artistaren beharra du. □

.1

alboan bi zenbaki jarri ditugu. Lehendabizikoak hitza ageri deneko orrialdea adierazten du; bigarrenak, berriz, lerroa.

- | | |
|--------------------------|-------------------------|
| -hartuemanetarako (96,2) | -mandatuak (100,8) |
| -lotegian (96,4) | -sabots (100,10) |
| -salerosketak (96,5) | -sapaipean (100,12) |
| -ikaskizunak (96,9) | -herrenkatuta (100,12) |
| -jardunaldi (96,11) | -bidalgo-kutxa (100,17) |
| -arkabuzlariok (96,11) | -eliz-sapaira (100,17) |
| -listaria (96,17) | -lokarriak (100,20) |
| -zintzurretik (96,23) | -derizkiok (100,33) |
| -tronuan (96,30) | -mon pot (101,1) |

Hartuemanetarako bideak

Gure artean, Berceau barnean eta kanpoko adiskideekin hartuemanetarako era askotako bideak jarri genituen praktikan.

Ikas-geletan, harizko telegrafoa; lotegian, Morseren arrasto (taupadak); kanpoan salerosketak egiteko, Jakoren gaixotegitik zehar; auzoan zen neska-ikastolako neskatxei eskutitzak bialtzeko, beste «sirim» berezi bat ere asmatu genuen.

Ikaskizunak entzun ondoren, eginkizunak egiteko, 10 Studio edo gela handira joaten ginen: ikasle asko biltzen ginen jardunaldi bakoitzean. Lau arkabuzleriok baita bestearengandik urrun samar geratzen ginen, eta gure hartuemanetarako harizko telegrafoa antolatu genuen.

Besteak «promenade»an ziren artean, Sauvaget eta 15 biok, gure mahai ilara iltzez josita utzi genuen, horma aldetik; pasilutik ikusi ezin zitekeen eran jarri, eta gero poliki-poliki, listaria biran pasata, atzetik aurrera irrist eraginaz, baitetik bestera paperak bialtzeko.

Estudioan kontuz ibili beharra zegoen. Bertako zuzendaria, Abisinian misiolari ibili eta gero, gaixotu zenean, Berceau-ra etorritakoa, gizon «originale» horietakoa zen: luze, zen baino ere luzeago ematen zuen, gurzurratik hasi eta oinetarainoko sotana beltzez; argal, sudur eta belarri handiak zituen; haren itxura, guztiz behintzat, ez zen irrifare egin erazten zutenetakoa.

25 «Le Sphinx» esaten genion; bi pare betaurreko jarritzen zituen bata bestearen gainean, betaurreko beltzak txurien gainetik.

30 Eskaileretatik igo behar zen haren «katedra» moduko mahaira. Geldi-geldi egoten zen bere «tronuan», burua

96

Sauvaget eta Prat, ondo zigortuta gero, belauniko ikusteak, ez zidan minik ematen. Baina besteak? Zer ikusteko zeukaten besteak?

Galdua naiz! Saint Vicent de Paul dontsuak ere, ez zuten miraririk egin, eta... bere ondorengoa, le Sphinx 5 «A geneoux!» —belauniko!—, garrasi egin zuen. Ne-neukan nere aurrean konturatu nintzenerako.

10 hartuak dozenaren bat zigorkada buru-bizkarretik barrena. Burua altxatu nuen batean, Prat-ek behatzez ezezko seinale egin zidan; ez hitzik egiteko nonbait. Nik gaurzak nola gertatu ziren ez nekien, eta mututurik bezala 15 geratu nintzen.

Izugarritzko iskanbila sortu zen estudioan; gure telegrafoarekin zerikusirik ez zutenak le Sphinx apaizaren aurka altxatu ziren (Vigne ere tartean), eta zutik jarrita, deiadarka, aurpegia suarki eman zuten; berehala 20 hasi ziren beste asko garrasika eta txistutika; azkenik, erdi zoratuta, gure epailari zorrotzak estudiofik alde egin zuen arte.

Ekaitz ondorengo barealdi hartan, bakoitzak zegokion tokia hartu zuen, eta zalaparta isildu zen. Guk, hain 25 mar lagun, belauniko jarraitzen genuen. Prat, Sauvaget eta ni, elkarren ondoan jarri ginen, isilik; gure burua bekatari aitortzea crabaki genuen.

Holako batean, han agertu ziren, le Sphinx-ekin batera, Aita Discamps eta Berceau-ko Apaiz-buru edo 30 Agintari nagusia.

Denak zutitu ziren, eta isilatasun osoa egin zen Erretore jaunaren hitzaldia zeterrela somaturik. Une hartantxe, gutxien espero zenean, Sauvaget zutitu eta Erretorearen aurrean jarriaz, honela mintzatu

98

altxata, izarretara begira balego bezala batzuetan, eta irakurtzeko «planta» egiten gehienetan. Inork ezin ahaien atzetik zituen begi gaixo haiek.

5 Gutxien uste genuenean, bere «tronu»tik makila eskuan zuela jaisten zen, eta hitzik ere esan gabe —hortik le Sphinx izena— burutik behera zauden betaurreko beltz rriketan harrapatutako ikasleak, gero belauniko jartzeko.

10 Le Sphinx-en begirada zorrotzak ez zuen denbora luzean, baina... «Gogotak» liburuan idatzita dagoen berordua heldu zitzaigun.

15 Gure telegrafo «zerbitzuak» hamar mahairen luzemahairaino, tartean, seigarren mahaian, Prat-en geltokia genuela.

Larunbat gaueko ikasaldia zen. Ni mukiak kentzen 20 doala adierazi nien nere berri-idazleci. Poliki-poliki, nere eskutitza lehenengo geltokira heldu zenean, behatza altxa, eta pixigitera joateko baimena eskatu nion Sphinx-ari; burua milimetro erdi bat 25 makurtuaz baietzkoa eman zidanean, estudiotik alde egin nuen.

Handik pixka batera, berritortu estudioan sartu nintzenez, izoztuta geratu nintzen, eta tripan izugarritzko korapiloa egin zitzaidan. Ikusten nuena, ez zen gutxiar 30 gorako... bederatzik ikasle lagun, burua makurtuta, gure Sphinxaren «tronu»pean belauniko zauden; gure mahai aldera begiratuta ikusten zen hutsuneak dardardote zen?

Handi-pixka batera, berritortu estudioan sartu nintzenez, izoztuta geratu nintzen, eta tripan izugarritzko korapiloa egin zitzaidan. Ikusten nuena, ez zen gutxiar 30 gorako... bederatzik ikasle lagun, burua makurtuta, gure mahai aldera begiratuta ikusten zen hutsuneak dardardote zen?

97

zen: «Barkatu Erretore jauna; hemen sortu ditizue iskanbila honen errua... —gu geunden tokira begiratuaz— gu hirurok daukagu». Prat eta ni zutitu ginen. «Beste inortok ez! Guk asmatu genuen harizko telegrafoa».

5 Hitz hauek esan zituztenean, algarra purrustada entzun zen estudio barnean. «Silence!», Erretoreak. «Jarrai zuen eginkizunetan... Zuek —gu hiruroi— zatozte nerekin!».

Aita Discamps geratu zen estudioan, eta gu, le Sphinxekin batera, Erretorearen lan-gelara eraman gintuen 10 Alferrikakoak izan ziren nik idatzitako papera inguratzeko egin zizkiguten galderak. Le Sphinx makilaka hasi zitzaunetan, Prat-ek ahoan sartu zuen, eta berehala irentsi, gure deabruerien berriak betirako ezkatutuz.

15 Bukatzeko, hilabeteko erru-ordaina jaso genuen bakoitzak.

Gau hartan lotegian batzarra izan genuen, eta Berceau-tik hanka egiteko zorian egon ginen, batzartuta gundela Aita Discamps, Landes-tar jatorra, tartean sartu ez balitz.

20 Nesken Ikastola

Berceau bertan, baratz ondoko etxean, lekaimeen ardurapean, nesken ikastola zegoen. Nesken ikastola eta bizilekuak gungandik hurbil samar zauden; bata bestearen artean edo tartean, Ligne Maginot-ik ez zegoen; baiena Berceau-ko araubide edo bizimoduak, gure eta haien eguneroko eginkizunak ez zituen behin ere bide berean jartzen.

Ezin zitekeena ez bazen ere, oso zaila behintzat gutzertatzen, Berceau-ko neskenegia hurreratzeko. Elizan ba-

99

karrik —guk abeslariok— izaten genuen gertutik ikus-
teko aukera.

Prat-ek haietako bi neskatza ezagutzen zituen; bata
bere lehengusina zuen, eta bestea, Ivonne, bere andre-
5 gaia zela esaten zuen, eta haren argazkia bere «porte-
feuille»an gordeta zuen.

Batzuetan Jakoren bitartez bialtzen zituen Ivonne-
rentzako mandatuak, baina beste «sistima» bat ere ba-
zeukan eskutitzak neskaren eskuetan jartzeko. Aste
10 egunetan, udazkenean eta neguan batez ere, «sabots»
edo zurezko oinetakoz ibiltzen ziren neskak. Eliza sa-
rrean, oinetatik kendu eta sapaiean herrenkatuta uz-
ten zituzten. Ivonnek bazekien zein lekutan eta nola jarri
behar zituen bere «sabotak». Horretaz gainera, Ivon-
15 neren «sabotek», ezaugarri bezala, hari gorri-luxur hor-
nitutako marrazkiak zeuzkaten gaineko aldean.

«Sabotak» ziren ba, gure bidalgo-kutxa, eta eliz-sa-
20 paira joaten ginenean, arreta pixka bat jarrita, kutxa po-
lit haïetan zer edo zer sartzea errez egiteko lana zen...
Oinetako lokarriak lotzen ari bagina bezala, makurtue-
ta... zast, kutxaren kolkoan jartzen genituen gure ezku-
tuko eskutitz «secret» haiek.

Gauaz lotegian izaten genituen ezkutuko batzar haie-
tako batean, honela galdetu nion Prat-i:

25 — Aizak, Jeanot (Jean zuen izena); hik Ivonneri
idazterakoan, zergatik ez diok galdetzen, ea guretzako
moduko neska lagunik baduen, berak ezagutzen ditue-
nen artean?

— Bai, gizona! Hori ez duk ezer kostatzen!
30 — Nik badiat Belgikan ateratako argazki txiki bat,
eta hik Ivonneri bialtzen badiok hire laguna naizela esa-
naz, baliteke berak neretzat neska lagunena bat aurkitzea.
Zer derizkiok?

100

Hala ere, besterik ezean, bertan hartzen genituen, tal-
deka beti, asteroko bustialdiak.

«Piscine» zelako hartara joateko gertatzen ari gine-
la, apaiz zaintzailea hurreratu zitzaidan:

5 — Zuk ez daukazu hilabetean piszinara joaterik
—esan zidan, eta jarraituz... gaur abere ikuiluan dau-
kazue zeregina, eta Monsieur Dupré-rengana aurkeztu
behar duzue.

Bizkarra jasota, nerikiko... «jakina, studioan izan
10 genuen jaitxoaren ondorioak»... baina halere ez nintzen
isilik geratu, erdi marmarrean «je m'en fous pas mal»
(neri ajola gutxi), nere lagunak entzun zezaten moduan,
esan gabe.

15 Ikultura lasai-lasai abiatu nintzen; bakarrak ez nin-
tzela izango banekien ba, eta halako batean, Sauvaget
eta Vigné aurretik nituela konturatu nintzen. Arindu ni-
tuen pausoak eta berehala atzeman nituen.

— Zuek ere ikuilura?

— Hobe! —erantzun zidan Vigné-k—. Gaurko «gou-
20 té», askaria edo bostetakoa, arrautza freskoz egingo dia-
gu. Ez al duzue behin ere arrautzarik zurrut egin?

— Bai, gizona! —erantzun nion—; baina, beste zer
edo zertxorekin lagundu beharko diagu, ala?

— Jakina zegok; nik bazekiat Dupré zaharrak lu-
25 kanka eta urdai-azpikoak gordetzen dituen tokira sar-
tzen; egon lasai, dena eginda zegok.

Berriketan bertara heldu ginen unean, Prat-ez oroi-
tu nintzen.

— Prat ez ote zetorrek? —galdegin nien.

30 — Ez —erantzun zidan Vigné-k—; Jeanot «chiottes»
(kakatokiak) garitzera biali ditiek.

— Orduan, kakasiez betela azalduko duk iluntzean?
— Ikusiko diagu —esan zuten batera beste bi arka-
buzlariak.

102

— Primeran, «mon pot» (nere adixkide kutuna).
Oraintxe bertan idatziko zioat, eta denbora gutxi barru,
ikusiko duk, laurok edukiko diagu, bakoitzak bere an-
dregai.

5 Pozik hartu zuten Sauvaget-ek eta Vigné-k nere arioz
eta Ivonneren bitartez hastera gindoaizen jokaldi berria.
Argazki atzeko aldean, hauxe idatzi nuen: «A mon
amie que j'espère connaître bientôt» (Aurki ezagutzea
espero dudan nere lagunari).

10 Maitasunak eragindako amets gozoak izan nituen la-
gun gau hartan lotaratu nintzean.

Gure jokabidea Berceau-n geroago eta okertagora zi-
hoan, zalditik astora edo astotik lurrera, esaten den be-
15 hasi ginen.

Gure «kondukta»-agiria ez zen zeruko atean sa-
rrera eskatzeko modukoa.

Axolagabekeria nagusitu zitzaigun, eta «C'est la gue-
20 m'en fous» (neri axola gutxi) esatea, guretzat egunero-
ko oigia zen.

Hainbestearainoko lotsagabekeriak, gure muga bar-
nean zegoen agure-etxera etortzen ziren gaixo-zain nes-
30 katei, gau ikerraldiak egiteraino arriskatzera ausartu
ginen. Misterioz betetako sartu-irten haiek, agureak eta
agureak ez zirenak iratzarri zituzten arte.

Igeritegiaren inguruan

«Piscine» esaten zioten, baratz bukaeran zen ur-aska
handiari. Ni, benetako piszinetan ibilia nintzen, eta me-
35 tro t'erdiko hondoak bakarrik zeukan potzu-tzar hura ez
zitzaidan behin ere laket izan, nere gustokoa ez zelako.

101

Dupré zaharra, oso gizon ona zen; lehen aitatu di-
tugun «poilus» horietakoa izana. Lehendik baratz la-
netan ibiliek ginelako, maiz xamar pasatzen ginen
40 gintuen.

5 Ikuiluko atarian zeuden zimauro pilak, karretoz ba-
ratzan zabaltzea izan zen arratsalde hartako lana.

Ganoraz hasi ginen lanean. Gure monsieur Dupré,
martxa hartan jarraituko genuelako uste osoan jarri ze-
10 nean, lekaime-etxera joan zen.

Hauxe zen Sauvaget-ek espero zuen ordu ona. Neri
keinu eginda, karreto hartu, eta ezkutatu zen. Guk, irri-
farrez eta txistuka, gure lanean jarraitu genuen, atze-
15 ra-aurrera, zimauro pilak zabaltzen.

15 Denbora luze samar zihoan, eta larritasun pixka bat
nabaitzen genuen.

— Hi, eta Sauvaget harrapatzen baditek?

— Guk ez zekiagu ezer.

— Hori bai, baina... lapurretan alegia...

20 — Bai zera, egon hadi lasai; Sauvaget-ek, hik eta nik
baino hobeki ezagutzen dizkiok hemengo zirkinzuloak;
honez gero, kolkoan dizkiok doenerdiren bat txorixoa, eta
urdai-azpiko zatiren bat ere; hor nonbait ibiliko duk.
Une hartantxe somatu genuen Sauvaget-en txistu soi-
25 nua... «Marche Lorraine» ari zen txistuka, eta seinale

30 Egun hartako gure «ordaina» Sauvaget-ek zekarren
kolkoan: lau txistor, lau lukanka eta dozana bat
arrautza.

Bapo geratu ginen arratsalde hartako bostetakoa
eginda.

Prat-entzat ere bere «partea» gorde genuen, gero
gauko batzarrean probatu zezan.

103

Gau hartako batzarra oso alaia izan zen. Lotegieta-ko ganbarara isilik igo, eta han bertan osatu genuen gure aforia. «Menu» dextente samarra osatu genuen: Pratek «inguratutako» ardo botila, gaixotegitik «karritako» opil txuriak, foie-gras lataxo bat, eta guk Dupré jaunari «eskaturako» txistor-lukainkak jan ondoren, «Gaulois» zigarretak erretzen ari ginela, jardunari ekin genion.

— Hi, zer moduz ibili haiz «chiottetan»?
 40 — Hago isilik; ni ur-garraioan ibili nauk, eta gero hanka egin diat bostak arte.

— Gu primeran ibili gaituk, Dupré zaharra ezagutzen duk eta... zimauro pixka bat zabaldu diagu, ez gertzen duk... zimauro pixka bila joan den bitartean.

45 — Hi, eta izan ere, nor jaten dizik lukainka hohiegi, Sauvagat lukainka bila joan den bitartean.
 50 — «san zuen Pratek»; nik behintzat, daramatza-riek? — dan zuen Pratek; nik behintzat, daramatza-dan bi urteotan ez diat behin ere holakorik probatu.

— Gaur behintzat, probatu dituk!
 — Bai, alajainkoa! Eta ez duk azkeneko aldiz izan-ean ez al duk hala, Sauvagat?

60 — Bai horixe! Hurrena, urdai-azpiko oso bat eka-rriko diat, bazegok han aukera, ez dituk konturatu-ko.

— Eta gaur arratsaldeko partez, zergatik ez diagu piszinara bueltatxo bat egiten? Giro ona zego kanpoan,

25 — Aida batean bat hartzeko «eskubidea» badu- gela iruditzen zaidak.

alkandora luzeak erazten. Praka-alkandorak jantzi eta oin hutsik, isilka, han abiatu ginen.

30 — Inor konturaterik ez zegoen; gure egun haietako zaindaria, apaizgai gaixo bat zen, eta loak hartzen zue- nean ez zen hurrengo goiz arte esnatzen; askotan, geuk deitzen genion goizeko kanpaiak jotzen zituztenean.

104

tako «sasi-akelarrea», oraino ondo begitan daukat.

Begi aurrean neuzkan lekaiame eta neska taldeek ez zuten Anbotoko sorginen antzik; oinetarainoko «kami- xa» luzez jantzita egon arren, uretan busti ondoren, on- dotxo nabaritzen zitzaizkien bular arte eta ipurdi aldeko borobiltasunak.

5 Iji eta aja, uretan murgiltzen zebiltzan artean, gure adimen-irudimeneak (ikusmenak laguntzen ez zigunean) zoragarriko paradisuari jartzen gintuzten. Uretatik ate- ratzekoan, beren ile-kopeta luze askatuak bihurtzean egi- ten zituzten emakume gisak benetak ikustekoak ziren.

10 Konturatu gabe odola berotzen ari zitzaigun. Hala- ko batean, gaueko isil marmar hartan, txalo jotzen ha- si zen piszina ertzean zegoen lekaiamea: «Neskatilak,

15 gaurkoz aski duzue, aguro, orain jazerat!»
 Bihotza taupadaka hasi zitzaidan; ura ikusi nahia! Dardarka nengoela uste dut; zirrara batek astindu zi- dan gorputz guztia.

Zalaparta bizian hasi ziren soinean itsatsita zeuzka- ten kamixa luzeak erazten... eta berehalaxe euki geni- tuen... guk ametsetan ikusten genituen bezalaxe...

20 larru-gorritan. Ez dut nere bizian gerozтик, halako be- rezko «striptease»rik ikusi. Hura atsegin zoramena! Be- netako sorginak, «sasi-akelarre» hartan!

25 Neskak ezkatatu zirenean, arnasa lasaia go hartu nuen, eta nik bezala besteek, uste dut.

Batak bestea bizkarrean joka, ezer esateko gauza ez ginela geunden, Sauvagat altxatu eta piszinara korrika abiatu zenean. Han ginen gu ondoren... eta erropak craz- teko beta handirik hartu gabe, laster ginen uretan. Gu- re kirioak otzantzeko ordua zen. Gure aingeru zaintzaileak bertan ote ziren? Hala bada, ez zuten an- tzerki «realista» makala ikusi!

106

Isiltasun osoa nabaitzen zen inguruan; katuak be- siluetatik zehar, isilik pasatu ginenean.

Handik aurrera estropozo handirik gabe jarraitze- ko aukera izango genuela uste genuen... baina jolasle- hitz hotsak urrutira somatu genituen... Ahotik hitzik ate- ra gabe, ezpaian segundu batzuk beharbada egon ginen.

10 — Aizak, «piscine» inguruan duk gauza.
 — Bai, gizona —erantzun duk gauza.
 — Hortaz, pixkanaka-pixkanaka hurreratu gaitezen; ea ezer ikusten dugun.

15 Lauoinka eta arrastaka hasi ginen hurreratzeko. Os- karbi zegoen gaua; ilargiak bere masail txuriak bete- betean zituen, Landes-etako izarrak multzoka ikusten ziren zeruko biltzar hartan. Haize epelaren igurtziak gure aurpegi larririk gozaten zituen, eta poliki, soinean so- 20 matzen genuen estualdi hura baretu zitzaigun.

Ez zen erraza bertaraino hurreratzeko; inguru haie- tan ez zen zuhaitzik, eta lehen esan dudana bezala, arras- barrenan sartu ginen.

25 Sarritan ikusi ohi nituen ametsetan, Zugarramurdi inguruan izaten ziren akelarre aipatuak; lamin eta sor- bertan gertatzen diren xehetasunak... eta hurrengo goi- zean, bart «ikusitako» sorgin haien arrastorik gabe ge- irudimenera ezin ekarritz.

30 Ametsetan izaten ditugun burutazio harrigarriak, ge- hienetan berehala ahazten ditugu; nik, ordea, gau har- 35

105

Gau hartan lotegira itzuli nintzenezan, ez nuen ame- tsik egin... nere begiz ikusitako «sorginak» alboan ni- tuela lo hartu nuen.

107

- planta (97,2)
- Sphinx (97,7)
- burutik behera (97,7)
- ikasaldia (97,19)
- berri-idazleei (97,21)
- korapiloa (97,29)
- dardarka (97,32)
- dontsuak (98,4)
- ondorengo (98,6)
- buru-bizkarretik (98,10)
- suarki (98,19)
- epailari (98,21)
- barealdi (98,23)
- zalaparta (98,24)
- purrustada (99,5)
- irentsi (99,13)
- erru-ordaina (99,14)
- zorian (99,17)
- lekaimeen (99,21) (106,2)
(106,14)
- araubide (99,25)
- andregai (100,4)
- aida batean (104,27)
- erazten (104,28)
- esnatzen (104,32)
- estropozo (105,4)
- ezpajian (105,8)
- lauoinka (105,15)
- masail (105,16)
- igurtziak (105,18)
- larriak (105,19)
- estualdi (105,20)
- bertaraino (105,21)
- ohi (105,25)
- girora (105,27)
- arioz (101,5)
- zalditik astora edo astotik
- lurrera (101,13)
- okerkeria (101,14)
- agiria (101,16)
- ikerraldiak (101,24)
- iratzarri (101,26)
- laket (101,31)
- gertatzen (102,3)
- nerikiko (102,9)
- atzeman (102,17)
- askaria (102,20)
- lukainka (102,24) (104,15)
- garitzera (102,31)
- beste bi (102,33)
- aitatu (103,1)
- ganoraz (103,8)
- zirkinzuloak (103,21)
- bapo (103,30)
- eskatutako (104,6)
- jardunari (104,7)
- hurrena (104,21)
- lirain (105,30)
- sasi-akelarrea (106,1)
- oraino (106,1)
- nabaritzen (106,5)
- artean (106,7)
- irudimenek (106,8)
- gisak (106,11)
- marmar (106,13)
- taupadaka (106,16)
- zirrara (106,17)
- larru-gorritan (106,22)
- zoramena (106,23)
- beta (106,30)

d. Lankideekin bildu azalpenen berri emateko. Argi adierazi zertan oinarritu duzun azalpen bakoitza.

3 *Era berean*

Aukeratu zeure ikasleei egokitutako testua eta berau irakurri ahala azpimarratu sailtasun-iturri datekeen guztia. Gero, aurrekoan egindakoaren ildotik, aztertu zehatz-mehatz testua hitz eta esamoldeen adierak ondorioztatzen eramango gaituzten arrastoen bila.

4 *Arrastoen berrazterketa*

“Arrastoen izenak” fitxa-bilduma hartu, **1 c-n** prestaturikoa, eta berraztertu, aurreko uneetan egindakoa kontuan hartuz. Badago zer kendu edota zer erantsirik?

5 Hausnarketa

- Ba ote dago, beti ez bada ere, gehienetan adierak ondorioztatzerik?
- “Arrastoak, izatez, desberdinak dira. Baita metagarriak ere. Mutur batean informazio *gutxien* ematen dutenak ditugu (“*gutxien*” esateak ez du esan nahi, inolaz ere, txikia denik; edo aintzakotzat hartzekoak ez direnik); bestean, berriz, argibide *zehatzena* eskaintzen dutenak.” Zer irizten diozu horri? Lankideekin aztertu eta adibide batzuk eman.
- Hitz edo esamolde baten adiera zehatz-mehatz ondorioztatzerik ez dagoenean, zer egin?
- Ba ote dago loturarik oraingoan eta aurreko mindegian egindakoaren artean?
- Ikasleen trebakuntzari begira ondorio zenbait atera.

* * *

Mindegia behin baino gehiagotan egitea iradokitzen dut. Horrek arrastoen arloa hobeto ulertzeko bide emango digu, esparrua zabalduz eta beronen mugak egoki zedarrituz. Horrelakoetan, “arrastoen izenak” fitxa-bilduma hartu eta behar beste ikutu eman.

Oharrak

.1: *HABE*, 193.zenb., 19.or.

.2: **Sabin Irizar** (1990) *Txingo-Gertaldi eta ibilkeriak*. Donostia: Elkar. Beren baimenarekin.